



2021/2022 denboraldia

## 25. ZIRKULARRA

### **EMAKUMEZKOEN KADETEEN 1. MAILAKO LIGA TXAPELKETA**

**OHARRA: 2021-09-13 egunean, ORIOKO F.T. erretiratzearen ondorioz zirkular honek ordeztuko du aurrekoa**

Gipuzkoako Futbol Federazioak aurtengo denboraldiko Emakumezkoen Kadeteen 1. Mailako liga txapelketa honela antolatu du:

#### **1.KLUB PARTAIDEAK**

##### **1. MULTZOA**

- 1 HONDARRIBIA F.E
- 2 OIARTZUN K.E. "A"
- 3 OIARTZUN K.E. "B"
- 4 ALLERRU K.E.
- 5 TOURING KE
- 6 INTXAURDI K.E. "B"
- 7 MARTUTENE K.E.
- 8 SANTO TOMAS LIZEOA K.E.

##### **2. MULTZOA**

- 1 ZESTOA K.B.
- 2 ZUMAIAKO F.T.
- 3 GOIERRI GORRI F.K. "A"
- 4 INTXAURDI K.E. "A"
- 5 AÑORGA K.K.E
- 6 ANTIGUOKO K.E.
- 7 ANTIGUA LUBERRI K.E.

##### **3. MULTZOA**

- 1 USURBIL F.T.
- 2 GOIERRI GORRI F.K. "B"
- 3 AIZKORRI GOIERRI F.T.
- 4 UROLA K.E.
- 5 TOLOSA C.F.
- 6 DANENA K.E.
- 7 EUSKALDUNA S.D.
- 8 URNIETA K.E.

##### **4. MULTZOA**

- 1 ALOÑA MENDI K.E.
- 2 AMAIKAK BAT K.E.
- 3 BERGARA K.E.
- 4 ELGOIBAR C.D.
- 5 ILINTXA S.D.
- 6 LAGUN ONAK C.D.
- 7 LEINTZ ARIZMENDI
- 8 MUTRIKU F.T.

#### **2.LEHIAKETA SISTEMA**

Emakumezkoen Kadeteen 1. Mailako liga txapelketa **31 taldek** osatzen dute 8 taldeko hiru multzok eta 7 taldeko multzo batek banatuta. Bi fasetan jokatu da: puntuen bidez



eta bi itzulietara (14 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federazioaren Araudi Orokorrean jasotako xedapenak jarraituko dira.

### **A.Igoera Fasea:**

Multzo bakoitzeko lehen lau sailkatuek (4x4=16) 8 taldeko bi multzotan banatuta jokatuko dute fase hau itzuli bikoitzera (14 jardunaldi).

Finala 2022ko maiatzaren 15ean jokatuko da zelai neutralean.

Txapelduna Ohorezko Kadeteen Mailara igoko dira mendekotasunik ez duten 11 talde onenak (partidetan lortutako puntuen arabera).

Emakumezko futbolaren komisioak 2021eko irailaren 8an erabakita, Ohorezko Kadeteen Mailan 2022-23 denboraldirako 10 taldeko bi multzo sortuko dira.

### **B.Gipuzkoako Kopa:**

Gainontzeko taldeek Gipuzkoako Kopa jokatuko dute.

### **3.ADINAK**

Txapelketa honetan 2005., 2006. eta 2007. urtean jaiotakoek har dezakete parte.

### **4.LIZENTZIAK**

Inskribatutako taldeek gehienez 25 lizentzia izan ahalko dituzte, "FA", "FJ" eta "FC" lizentziei dagozkienak; azken kasu horretan, 15 urte beteta eduki beharko dira. Lehen taldean izena emanda dauden "FJ" eta "FC" **lizentziadun jokalariek ezingo dute beren lizentziari dagokion taldean jokatu, hau da, jubeniletan edo kadeteetan.**

### **5.BALOIA**

Baloia 5 zenbakiduna izango da.

### **6.IRAUPENA ETA ALDAKETAK**



Partidak 80 minutuko iraupena izango du, bost aldaketa egin ahalko dira eta gehienez zazpi ordezko egongo dira aulkian.

### **7.ORDUTEGIA**

Klub antolatzaileek posible izango dute beraien partida larunbat goizera edo arratsaldera aurreratzea aurkakoaren baimenik gabe.

### **8. JOKALARI INFANTILEN PARTE HARTZEA KADETE MAILAN**

**"Azken urteko ohorezko infantilek kadete mailan izena eman eta parte hartu ahal izango dute, honako irizpide hauek bete ondoren:**

- Gipuzkoako Foru Aldundiari egindako eskaera arrazoitua, proposatutako jokalarien zerrenda zehatzarekin.
- Foru Erakundearen baimena, eskolarretako infantilek kadete mailako lehiaketetan parte har dezaten.
- Azterketa medikuaren ziurtagiria aurkeztea.
- Mutualitatean afiliatuta egotea.
- Dagokion federazio-lizentzia tramitatzea

### **9.PARTE HARTZE BIKOITZAREN ARAUZKO ONDORIOAK**

Aurreko puntuan deskribatutako baldintzak beteta, infantilen azken urteko jokalariek goragoko hurrengo kategorian parte hartu ahal izango dute, baina **infantilen taldean lerrotatze desegokiaren okerra egingo da, asteburuan bi partidatan parte hartzen badute, nahiz eta egun desberdinetan egin.**

### **10.DIZIPLINA ARAUDIA**

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehenik Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina



Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenik Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.

### **11.COVID-AREN ARAUTEGIA ETA PROTOKOLOA**

Covid-19ari buruzko ezohiko araudia Gipuzkoako Futbol Federazioaren 10. zirkularrean jasota dago. Halaber, ahal den neurrian, SARS-COV-2 (COVID-19) SAIHESTEKO OSASUNAREN BABESARI ETA PREBENTZIOARI BURUZKO PROTOKOLOA BETETZEA gomendatzen da Euskadiko Futbol Federakundearen ENTRENAMENDUETAN ETA/EDO LEHIAKETETAN. Araudi hau hiru lurraldeetako federazioekin batera idatzia eta Eusko Jurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak onartua da.

**Donostia, 2021eko iraila**

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA  
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL



Iñigo Letamendi Artetxe  
Idazkari Nagusia-Secretario General